



gehiago eman behar genuela erosleak ase nahi bagenituen. Horretarako Euskal Herriko autoreei dei egin diegu». Izan ere, historia eta kultura jorrazten duten kapituluentzat, Ur Apalategi idazlearen eta Claude Labat Lauburu elkarte-kidearen laguntza ukan dute.

GIDA GUZTIAK MODAREN JARRAITZAILE. Michelin argitaletxea ez da ordea, gida turistikoaren sektorean bide berri hori hartu duen bakarra, ez eta lehena ere. *Le Guide du Routard* izan zen zazpi probintziak elkar-tzen zituen mapa argitaratzera auzartu zena 2000. urtean. Sar hitz zabal bat idatzi zuen bere engaiamenduaren zehazteko: «Euskal Herrira iristerakoan bidaiaria zepo administratiboan eroriko bada ere hastapen batean, denbora hartzen badu ohartuko da azaleko tindua faltsua dela, eta alde batean zein bestean atzemanen duen izana berdina dela». Sei urte berantago, nabarmendu beharra da Biarno ere sartua duela edizio berrian, nahiz eta sar hitzaz baliatu Euskal Herria eta Biarnoren ezberdintasunak zehazteko, eta bide batez Euskal departamenduaren promozioa egiteko.

Le Petit Futé eta Lonely Planet gida egileek ere egin dute beren *Pays basque* gida. Hor ere ñabar-dunak badaude. Le Petit Futé kritika anitz jaso zituen bere zorrotasun eskasagatik eta Lonely Planetek Hego Euskal Herriaz gain, Akitania osoa sartu du edizio berdinean. Beretzat lotura hori ez da artifiziala, eskualde guztiak bere osotasuna duelako azaldu zuten argitalpena publiko egin zutenean 2003an. Baina onartu zuten ere, beste gidek ekartzen zutena baino gehiago eman nahi zutela.

Dena dela, gidak herriaren hurbilpen bat emateko baizik ez dire-lako eginak, orain ikusi behar turista Euskal Herrira etorri eta, hemengoek zer harrera mota egingen dioten. Horretan ere kontradikzio franko baitago. Euskal Herria modan bada ere, bakoitzak bere Euskal Herria baitauka.



Surflari bat, Zumaia eta Getaria arteko tartean olatu handi bat hartuta. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Espanian argia ikusten duten gidak dira azken horren adibide. Euskadiri egiten diote erreferentzia guztiak; Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak osatutako Euskal Autonomia Erkidegoari. Muga kulturalak baino, politikoez lehentasuna dutela, alegia. Horren adibidea izan liteke Michelin etxeak hartutako erabakia. Frantziar argitaratutako berri duten 'Gida berdeen' *Pays basque* alea ez dute Espainiako dendetan banatu. Gaztelan edo espainolez idatzita ez dagoela eta, ondorioz, arrakastarik izango ez duela pentsatzea izan daiteke hori argudiatzeko arrazoietakoa bat. Michelinek frantsesez kaleratu dituen gainerako lekuetako gidak erosteko, ordea, ez dago eragozpenik. «Enpresa aginduak dira», argudiatu diote Michelin enpresaren Madrilgo egoitzatik Elkar Megadendako langileetako bati. Turismo gidetako mapek eta banaketek ere egiten baitute politika.

LANDA TURISMOAREN LORALDIA. Azkenaldian Espainian argitaratutako gidetako bi Everest argitaletxearen *El País Vasco* eta Anaya etxearen *País Vasco* dira. Lehenengoa Julia Gomez Prietoren lana da, eta

Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetara mugatzen du gida. Egileak berak definitzen du zer den 'País Vasco' sarrerako testuan: «Euskadik hartzen duen lurralde eremua oso handia ez bada ere —7.261 km karratu—, berau osatzen duten Gipuzkoak, Bizkaia eta Arabak eskaintzen duten aniztasunak merezi du gida oso bat». Natura, artea, tradizioa, gastronomia... usadio zaharrei erreparatu die gidak lehen zatian. Dena den, ohitura zaharrak mantentzen dituen herri moderno bat jaiotzen ari dela ere badio liburuko pasarteetako batean. Horien ondoren, beste lau atal nagusi ditu *El País Vasco* gidak: lurralde bakoitzari buruzko bana, eta landa etxeei eskainitako bat. Azken urteotan indar handia har-

Euskal Herria osotasunean hartzen duen liburuxka kaleratu du aurten frantsesez Michelinek

Euskal Herriak gero eta bidaiari gehiago erakartzen dituela diote gidaren egileek

tu duen turismoa da landa etxeara; Euskal Herria ezagutzeko naturarekin harreman estua duena. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako etxeei buruzko informazioa bildu du luze-zabal Everest gidak.

Anaya etxearen *País Vasco*-k 2006ko martxoan ikusi zuen argia, Guia Total sailaren barnean. Bestelako egitura bat eman diote gidari, eta sei ataletan banatu dituzte Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia: Nerbioi ibaia eta Uribe-Kosta, Mendebaldeko kostaldea, Ekialdeko kostaldea, Barnealdea, Arabako Donejakue bidea eta Arabar Errioxa. Hiri eta herri nagusiak banan-banan deskribatu eta sakondu dituzte. Bi gidetan aipamen berezia duen alorra gastronomia da. Pintxoak dituzte izar bi gidek, eta horiek dastatzeko *ibilbidea* proposatu diote turistari.

Batean zein bestean, Nafarroaz aipamenik ez; ez bada inguruko komunitate moduan definitzeko. Ez alferrik. Euskadiri buruzko gida turistikoak ez ezik, Nafarroari buruzkoak ere argitaratzen baitituzte etxeok. Ipar Euskal Herriari buruzko erreferentziak nahi dituenak, aldiz, Frantziako gidetara jo beharko du.

kualde hau. Euskal Herriak gero eta bidaiari gehiago erakartzen dituela argi da», Brabisek dioenez. Hots, aldaketa ez da batere inuzentatza, bada dirua irabazteko.

Lehen dirua folklorismoa egin ez irabazten zelarik, orain bisitariak zorrotasun gehiago eskatzen duela badakite Michelinekoek: «Bagenekien azalekoa baino

udako argazki lehiaketa

Uda sasoi aproposa izaten da astialdian kamera lepotik zintzilikatu eta argazkiak egiteko. Inguruko txoko ederrenak, bidaietako paisaia liluragarriak, jaietako edo lagun arteko giroa... Udak hamaika aurpegi du, eta zuen begietatik ikusi nahi ditugu.

norabidali

Posta elektronikoa:
irakurle@berria.info (lehiaketarako dela jarri).
Posta arrunta:
Argazki lehiaketa. BERRIA egunkaria.
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudárien Etorbidea z/g, 20140 Andoain.

**SARI BIKAINAK
IZANGO DIRA
IRABAZLEENTZAT**

arauak • Ekainaren 23tik irailaren 17ra, egunero argitaratuko ditugu zuek bidalitako argazkiak. Argazkiak bidaltzeko epea zabalik dago gaurtik aurrera. Nahi adina argazki bidal daitezke. BERRIAk osatutako epaimahaiak erabakiko du sariak nori eman.

aholkua Ez da komeni argazkiak azken unean bidaltzea. Nahi adina argazki bidal daitezkeenez, sarri parte hartzea komeni da, astero-astero sari bat zozkatuko baitugu aste horretan parte hartu dutenen artean.

baldintzak Argazkiek aurtengoak behar dute izan. Koloreetakoak zein zuri-beltzetakoak izan daitezke. Papereko argazkiak, diapositibak eta argazki digitalak onartzen ditugu.

Argazki digitalek ezaugarri hauek behar dituzte: jpg formatua eta, gutxienez, 1.800 x 1.200 pixel. Behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den adierazi beharko da, eta zer ikusten den ere labur idatzi. Jasotako argazkiak artxiboan gordeko ditugu, eta BERRIAk behar dituzten argitaratu ahal izango ditu.